

Hemoglobina gaztetu, anemia faltziformea sendatzeko

Estatu Batuetako ikertzaile batzuen ustez, gene-terapia baliagarria izan daiteke anemia faltziformea tratatzeko.

Anemia faltziformea herentziazko gaixotasun bat da, eta hemoglobinarekin ekoizpenarekin lotutako bi generen mutazioengatik sortzen da. Mutazioen ondorioz, hemoglobina akastuna ekoizten dute, eta globulu gorriek igotai-itxura izaten dute. Hori da, hain zuzen ere, gaitzaren ezaugarri nabarmenena.

Orain proposatu duten terapia gaixotasunaren beste ezaugarri batean oinarritzen da: haurrak 6 hilabete egin ondoren azaltzen dira gaitzaren sintomak. Izan ere, ordura arte hemoglobinarekin beste bertsio bat izaten dute, eta hura kontrolatzen duten geneek ez dute izaten mutaziorik.

Hori kontuan hartuta, BCL11A izeneko genea identifikatu dute Howard Hughes

Medikuntza Institutuko eta Harvard Unibertsitateko ikertzaileek. Gene horrek hemoglobina fetala desagerrarazten duenez, pentsatu zuten hura isilarazita globulu gorriek hemoglobina fetala izango zutela, eta bide egokia izan zitekeela anemia faltziformea tratatzeko.

Hala, saguekin esperimenduak egin dituzte. Gene hori gabeko saguak jaio eta handik gutxira hil egiten zirela ikusi zuten. Aldiz, genea globulu gorrietan bakarrik isilaraziz gero, hemoglobina fetala zuten globulu gorriak sortzen zituzten. Zehazki, globulu gorrien % 30ek zuten hemoglobina fetala, eta, horri esker, anemia faltziformearen sintomak asko apaltzen ziren.

Ikertzaileen ustez, globulu gorrietan BCL11A genearen espresioa oztopatzea gakoa izan daiteke anemia faltziformea duten pertsonak sendatzeko. Hala ere,



aitortu dute saguetatik pertsonetara tarte handia dagoela, eta ikerketa gehiago egin beharko direla gaixoak horren bidez tratatzera iristerako. ●

www.uztaro.com

giza eta gizarte-zientzien aldizkaria on-line

Ekonomia, zuzenbidea, psikologia, pedagogia, filosofia, kazetaritza, soziologia, soziolinguistika, linguistika, glotodidaktika, literatura, itzulpen-gintza, ikasketa klasikoak, artea, musika, historia, geografia, etb.

UZTARO is a periodical which was first issued in 1990 with the general purpose of publishing articles on human and social sciences

www.uztaro.com helbidean aldizkariaren zenbaki guztiak kontsulta ditzakezu. Artikulu batzuk irakurgai daude oso-osorik; besteetan artikuluen laburpena irakur daiteke. Horrez gain jakintza arloka ere kontsulta daitezke artikuluenak.

Aldizkariaren maila jaso; funtzionamendua Erredakzio Kontseiluko adituek, ebaluatzaileek eta aldizkariaren Zuzendariak bermatzen dute artikuluen maila jaso

Harpidetzeko fitxa bete
www.uztaro.com
helbidean



4
zenbaki
25 €

www.uztaro.com